Etxarri Aranazko araztegia. ARTXIBOA

Eguzki plakak lau araztegi nagusietarako

Etxarri Aranatz eta Urdiain-Altsasukoan 2024an, Irurtzungoan 2025ean eta Lakuntza-Arbizukoan 2026an. 108 kilowatt puntako potentzia ezarriko da 190.523 euroko inbertsioa eginda

SAKANA

Nilsa enpresa publikoa araztegietan panel fotovoltaikoak jartzeko 2023 eta 2026 arteko plangintza egina du. 19 araztegietan jarriko ditu eguzki plakak, tartean ibarreko lautan. Neurri horrekin Nilsako arduradunek "klima aldaketaren kontrako borrokan eta jasangarritasunaren aldeko pausoak" eman nahi dituzte. Izan ere, alde batetik, energia berriztagarriak sustatu eta argindar faktura murriztuko dute. Eta, bestetik, CO_2 isurketak murriztuko dituzte.

Hemeretzi araztegi horietan eguzki plakak jartzeko Nilsak 1.128.739 euroko inbertsioa egitea aurreikusten du. Haren %16,69 (190.523 euro) ibarreko lau araztegietarako izanen da. Enpresaren helburua da 647 kilowatt puntako potentzia ezartzea, %26,69 (108) Sakanan. Nilsak jakinarazi duenez, araztegi guztien artean 4.132.478 kilowatt orduko kontsumoa dute urtean, eta jarriko dituen azpiegiturekin 895.316 sortuko dira (%21,67).

Sakanakoak

Heldu den urtean bi araztegietan jarriko dira panel fotovoltaikoak. **Etxarri Aranazko** araztegian Nilsak jarriko dituen panelen potentzia 22 kilowatt puntakoa izanen da. Horretarako 39.735 euroko inbertsioa eginen du. Etxarri Aranazko araztegiak urtean 73.087 kilowatt orduko kontsumoa du, eta azpiegitura berriarekin argindar horren %40,19 (29.375) araztegian bertan sortuko da. **Urdiain-Altsasuko** araztegian, berriz, 50 kilowatt puntako potentzia jarriko da 84.069 euroko inbertsioa eginez. Burundako bi herrietako araztegiak urtean 210.793 kilowatt orduko elektrizitate kontsumoa du eta plaken bidez haren %30 (63.248) sortzea espero dute.

Nilsak 22.234 euroko inbertsioa eginen du 2025ean **Irurtzungo** araztegian 11 kilowatt puntako potentzia duen azpiegitura jartzeko. Irurtzungo araztegiak urtean 176.229 kilowatt orduko energia kontsumoa du eta eguzki plaken bidez haren %8,73 (15.387) sortuko dute. Azkenik, Lakuntza-Arbizuko araztegian eguzki plakak 2026 urtean jartzea aurreikusi du Nilsak. 25 kilowatt puntako potentziako instalazioa jartzeko 4.485 euroko inbertsioa egitea aurreikusten du. **Lakuntza-Arbizuko** araztegiak urtean 88.184 kilowatt orduko energia kontsumoa du eta azpiegitura berriarekin haren %25,47 (31.624) araztegian bertan sortuko da.

Arbizuko Udalak ihote larunbaterako proposamena egin du

Hiri ihotea otsailaren 18an, larunbatarekin, eta herri ihotea otsailaren 21ean, asteartearekin, ospatuko da Arbizun. Ikusita plazako estalpeko lanak oraindik ez daudela despedituta eta herrian taberna kopuru eskasa dagoela, Arbizuko Udala larunbat eguerdi-arratsalderako festa gune bat antolatzeko prest dago. Udalaren ideia da kiroldegiko frontoian herri bazkaria antolatzea, ondoren dantzaldia egonen litzateke eta, gainera, frontoiko kantxan bertan taberna jartzea aurreikusi du udalak. Bazkaria catering batek emango luke, eta frontoia berotzeko kainoi pare bat jarriko lituzkete.

Bi baldintza betez gero ideiak aurrera eginen du. Bata, kantxako taberna hartzeko prest dagoen talde edo elkarte bat egotea. Interesa dutenek udaletxean eskaera egin behar dute otsailaren 5erako. Beste baldintza da bazkarirako txartel "nahikoa" saltzea. Udalak jakinarazi duenez, haurrendako eta helduendako menua egonen litzateke. Udalaren asmoa da txartelak otsailaren hasieran eskuragarri jartzea, otsailaren 12ra arte. "Beraz, ezinbestekoa izanen da otsailaren 12a baino lehen bazkaltzeko txartelak erosita egotea, apuntatutako jende kopurua jakiteko eta minimoak betetzen direla ziurtatzeko".

Dozena bat udalerritan gas sarea luzatuko dute

Sakanako hamabi udalerritan lanak egiteko asmoa du Nedgia Navarra SA enpresak aurten: Arakil, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordian. Enpresak herrietan dagoen gas sarea luzatu eginen du, eta hari hargune berriak lotu. Herri guztietan gas sarea metro gutxi batzuk luzatuko du, guztira 340. Horrek ahalbideratuko du hamabi herri horietan 39 gas hargune berri jartzea. Nafarroako Gobernuaren oniritzia jasota, egitasmoa otsailaren 14ra arte jendaurrean ikusgai dago, egoki jotzen diren alegazio, iradokizun edo oharrak egin ahal izateko.

Gas sarea luzatzeko lanak 2023an

Herria	Metro	Harguneak
Arakil	10	2
Irurtzun	17	3
Uharte A.	35	3
Lakuntza	17	3
Arbizu	17	2
Etxarri A.	17	2
Bakaiku	35	2
Iturmendi	35	3
Urdiain	17	3
Altsasu	86	10
Olazti	17	3
Ziordia	37	3
Guztira	**340**	**39**